

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Gure ideia enpresariala dietetikari buruzko zerbitzu berri bat ematea da. Elikadura motaren eraginez, gizarteko osasuna gero eta txarragoa da eta horregatik, hainbat gaixotasun garatu dira (gaixotasun kardiobaskularrak adibidez).

Idea hau, 2. dietetika maila ikasten geundela etorri zen. Gai honi buruzko ikasketak egiten genuen heinean, dieta osasuntsu bat nolakoa den jakitea oso zaila egiten zaigula konturatu ginelako. Horregatik, jendeari zailagoa iruditu ahal zaie dietetikako zein nutrizio ikasketak ez dituztelako. Horren ondorioz, gure app-a arazoari aurre egiteko tresna egokia zein erabiltzeko erraza delakoan gaude.

Gaur egungo bizi erritmoa dela eta, app bat egitea erabaki onena dela uste dugu. Alde batetik, mugikorrek denbora guztian eskuen artean ditugulako eta bestetik, app-ak erantzuna ahalik eta azkarren ematen duelako. Izan ere, bezeroak jaten dituen elikagaien eta horien anoen kantitateak app-ean sartzeko erraztasun handiak eskaintzen ditu. Beraz, denbora ez da aitzakia izango dieta aldatzeko bidea hasteko.

Gure aplikazioaren funtzionamendua honako hau da: lehendabizi jandako menuaren argazki bat igo behar da, jarraian aplikazioak menuaren elikagaiei buruzko galdera batzuk egingo ditu, kantitatea eta sukaldatzeko modua zehazteko. Aplikazioak datu nahiko dituenean, menuaren inguruko informazioa emango du, baita menua osasungarriagoa izateko zein pasu jarraitu behar dituzun zehaztuko dizkizu ere. Emandako informazioa zehatzagoa izateko, aplikazioak zure datu pertsonalak eskainiko ditu, baita bezeroak gaixotasunak dituen galdetuko du ere.

App-arekin eskainiko dugun zerbitzuaren arabera, balio kualitatiboan (app-aren diseinu berriztatzailea eta erakargarria) eta balio kuantitatiboan (prezioa eskuragarria pertsona guztientzako) oinarrituko da. Azken finean, gure gizartearen osasuna hobetzeko nahian, produktu berri hau leku guztietatik zabaltzea lortu nahi dugu.

Hauek dira gure enpresak dituen ezaugarri nagusiak:

- ★ **Berritasuna:** inork ez du gure zerbitzua sortu.
- ★ **Diseinua:** bezeroen erakarpina pizteko ezinbesteko tresna izango da.
- ★ **Prezioa:** bezero/ pertsona guztiontzat eskuragarria. Euro bateko aplikazioa izango da.
- ★ **Arriskua murriztea:** datu guztiak babestuta egongo dira eta ezinezkoa izango da datu horien aurka zerbait egitea, ezta bezero desberdinen informazioa hartzea ere.

- ★ **Eskuragarritasuna:** mugikorretan eskuragarri, beraz, momentu guztietan eduki ahal duzun app-a, ez da beharrezkoa internet-ari konektatuta egotea.
- ★ **Erabilerraztasuna:** zerbitzuak erabiltzeko erraztasun handiak ditu.

Enpresa berritzaile honekin lortu nahi duguna zera da: bezeroek dietetikari buruzko ezagutza zabaltzea, dieta osasuntsua nolakoa den ikastea, erosten duten produktuen mantenugaiak ezagutzea, haien beharrak kontrolatzea (adibidez: dietaren ekarpen kalorikoa egokia izatea, horren ondorioz, obesitatea saihestu ahal dute). Azkenik, nutrienteen eta energiaren beharrak bizitzaren aldi desberdinetan aldatzen direla ikastea.